BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1397

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 25ekoa, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2020ko laguntzak emateko.

Ebazpen honen bidez betetzen dira otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak (Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena) 2020rako ezarritako xedapen guztiak (martxoaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak (Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena) aldatu zuen dekretu hura. Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, baina dirulaguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar dituzte edukiok.

34/2007 Dekretuak arautzen ditu, hegoaldeko pobretutako herrialdeen prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuz, pobreziaren aurkako borrokan laguntzen duten garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzak. Horretarako, tokikoari lehentasuna eman nahi zaio estatukoari eta nazioartekoari loturik, garapenerako lankidetzako irabazi asmorik gabeko erakundeen bitartez.

Aipatutako dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia atxikita dagoen saileko organo eskudunak xedatuta, laguntzen deialdia egingo da. Deialdi horretan, honako hauek adieraziko dira: deialdiaren xedea, diru-hornidura orokorra, hiru laguntza-modalitateetarako aurreikusitako diru-hornidura, erakunde bakoitzak gehienez eska dezakeen zenbatekoa, hautaketa-irizpideak, eskabideak aurkezteko tokia eta epea, eta eskabide-eredua.

Beste alde batetik, dekretuaren 22.4 artikuluak hau ezartzen du: erakunde bakoitzak gehienez aurkez ditzakeen eskabideen kopurua eta/edo erakunde bakoitzak proiektu guztietarako gehienez eska dezakeen guztirako zenbatekoa zehaztuko da dagokion deialdia egiteko ebazpenean.

Halaber, 24. artikuluaren arabera, deialdiaren ebazpenean ezarriko dira dirulaguntzaren ordainketa bakoitzaren ehunekoak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuarekin bat etorriz, Lehendakaritzak ditu garapen-lankidetzarekin lotutako funtzioak. Funtzio horiek Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusiak esleituta dauzka, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren bidez.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak du eskumena laguntza horiek eta emango diren ebazpenak kudeatzeko, hala xedatuta baitago, batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan, eta, bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 5.b) artikuluan.

Deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso zuen, 2020ko otsailaren 11n egindako bilkuran.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da garapenerako lankidetza-proiektuetarako 2020rako dirulaguntzen deialdia egitea; uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatutako otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak (Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena) arautzen ditu laguntza horiek.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Deialdi honetara bideratutako diru-horniduraren zenbatekoa, guztira, 32.000.000 eurokoa izango da. Laguntza mota bakoitzerako honako diru-hornidura hau kalkulatu da:

a) Garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzetara 26.600.000 euro bideratuko dira.

b) Ekoizpen-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuentzako laguntzetara 1.200.000 euro bideratuko dira.

c) Garapenerako hezkuntzarako proiektuentzako laguntzetara 4.200.000 euro bideratuko dira.

3. artikulua.– Proiektu bakoitzerako eskatutako dirulaguntza.

Proiektu bakoitzeko ezin izango da 600.000 euro baino laguntza handiagoa eskatu.

4. artikulua.– Erakunde bakoitzeko eska daitekeen gehieneko zenbatekoa, guztira.

Erakunde bakoitzak, banaka edo beste batzuekin elkartuta, gehienez 5 proiektutarako laguntza eskatu ahal izango du, eta horien guztien gehieneko zenbatekoa aurreko artikuluan aipatutakoa izango da. Kopuru hori 6 proiektutara zabaldu ahal izango da, baldin eta horietako bat Afrikako kontinentean gauzatzen bada.

Erakundeari eman ahal izango zaion zenbatekoak ez du inola ere gaindituko 3.009.267,69 euroko zenbatekoa, alegia 2020ko ekitaldirako onartutako funts banagarrien % 7.

5. artikulua.– Dirulaguntzen ordainketa:

Emandako dirulaguntza honako epe hauetan ordainduko da:

a) Emandako dirulaguntzaren % 20 (lehenengo ordainketa), laguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren.

b) Emandako dirulaguntzaren % 40 (bigarren ordainketa), ordaindutako dirulaguntzaren % 80 edo hortik gora egin dela justifikatu ondoren.

c) Emandako dirulaguntzaren % 40 (hirugarren ordainketa), ordaindutako dirulaguntzaren % 80 edo hortik gora egin dela justifikatu ondoren.

6. artikulua.– Laguntzak elektronikoki izapidetzea.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin beharko dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta agiriak nola izapidetu behar diren jakiteko xehetasunak hemen eskura daitezke: https://euskadi.eus egoitza elektronikoan eta www.elankidetza.euskadi.eus web-orrian.

3.– Eskabidea egin osteko izapideak helbide hauetan egin beharko dira: http://www.euskadi.eus edo www.elankidetza.euskadi.eus

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskabidea aurkezteko bitarteko elektronikoak erabili beharko dira, https://www.euskadi.eus egoitza elektronikoan (Izapideak; Dirulaguntzak eta bekak atalean), edo, bestela, http://www.elankidetza.euskadi.eus webgunean (Deialdiak atalean).

3.– Eskabidea egiteko eskabide normalizatu bat aurkeztu beharko da, behar bezala betea; aipatutako egoitza elektronikoan eskura daiteke.

8. artikulua.– Dokumentazioa.

1.– Agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntzaren eskabidearekin batera:

a) Proposamen teknikoa eta aurrekontua, eredu normalizatuan. Biak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira. Hemen eskura daitezke: https://euskadi.eus egoitza elektronikoan eta www.elankidetza.euskadi.eus webgunean. Proposamen teknikoak gehienez ere 50.000 hitz izan ditzake.

b) Lege-ordezkaritzaren egiaztapena, aurrez aurreko eskabidea sinatzen duen pertsona ez bada erakunde eskatzailearen ordezkari gisa inskribatuta agertzen Eusko Jaurlaritzako ordezkarien erregistroan, eta egiaztapen hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian agertzen ez bada (https://euskadi.eus edo www.elankidetza.euskadi.eus).

c) Lankidetzaren esparruan gutxienez bi urteko etengabeko esperientzia duela adierazten duen egiaztagiria, baldin eta erakundearen estatutuetan ez badago berariaz jasota erakundearen helburua dela hegoaldeko herrialdeen garapenera bideratutako proiektuak gauzatzea.

d) Elkartutako erakundeak badira, dagokion hitzarmena aurkeztuko da, egoitza elektronikoan eskura daitekeen ereduaren arabera.

e) Gastuak fakturekin ez baizik eta ordainagirien bidez justifikatzea aurreikusi bada, azalpen-memoria bat aurkeztu beharko da, hori justifikatzen duten arrazoiekin. Azalpen-memoria hori egoitza elektronikoan eskura daiteke.

f) Erakunde eskatzaileak erbesteratutako pertsonak bidaltzen baditu, eginbeharreko lanak eta iraupena azalduko dituen eta beharrezko gaitasun- eta kalifikazio-irizpideak jasoko dituen azalpen-memoria aurkeztu beharko da. Memoria-eredu bat eskuratu ahal izango da egoitza elektronikoan.

g) Proforma fakturak, aurrekontuak edo kanpoko balorazioak, Dekretuak ezartzen duenaren arabera hori beharrezkoa bada.

h) Nagusiki hegoaldeko herrialde batean egiten diren proiektuen kasuan, eta Dekretuak ezartzen duenaren arabera, txandakako funtsaren azalpen-memoria aurkeztu beharko da.

2.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen erakundeari zuzenean egiazta dezan honako hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen direla (zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei buruzkoak): 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluak, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra. Erakunde eskatzaileak berariaz ukatzen badu baimen hori, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, aipatutako errege dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

3.– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako inguruabarretako batean dauden erakundeak ezingo dira laguntzen onuradun izan.

9. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio dirulaguntzen lerro honen kudeaketa-lanak egitea, eta Agentziaren Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak egingo ditu laguntza-eskaeren analisi teknikoa eta balorazioa; gero, horren berri emango dio Kontseilu Errektoreari, zeinak dagozkion laguntzak ematea proposatuko baitu.

10. artikulua.– Esleitzeko eskumena duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria da iragarritako laguntzak esleitzeko eskumena duen organoa.

11. artikulua.– Hautaketa-irizpideak.

Eskatutako betekizun guztiak biltzen dituzten eskabideak ebazpen honen eranskinean jasotako hautaketa-irizpideen arabera baloratuko dira.

12. artikulua.– Hitzarmena sinatzea.

Dirulaguntza onartu ondoren, hitzarmena sinatuko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta erakunde esleipendunaren artean, emandako dirulaguntza bakoitzeko, finantzatzen den proiektu motaren arabera. Hitzarmen hori https://euskadi.eus egoitza elektronikoan eta www.elankidetza.euskadi.eus webgunean egongo da ikusgai.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren menpe egongo dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; eta 34/2007 Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez arautzen baitira Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak (dekretu hura uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 25a.

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.

ERANSKINA

APLIKATU BEHARREKO HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

A) Garapenerako lankidetza proiektuak (I. kapitulua).

I.– Proiektuaren edukien arabera: 48 puntu.

1.1.– Proiektuaren bidezkotasuna eta egokitasuna Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldiko IV. Gida Planari dagokionez eta txertatzen den testuinguruari dagokionez: gehienez, 20 puntu.

– Gehienez 3 puntu, ekimena egokia bada dagokion testuinguruaren analisian oinarrituta, eta diagnostikoan identifikatutako premiei erantzuten badie.

• Puntu 1, xede-biztanleriak esku-hartzearen eremuan duen pobrezia- eta desberdintasun-egoerari buruzko egiturazko azterketa eta/edo interpretazio nahikoa badu.

• Puntu 1, tokiko erronkek eta arazoek dinamika globalekin duten konexioaren azterketa kritikoa egiten badu.

• Puntu 1, analisiak gaiarekin eta kokapen geografikoarekin lotutako datu espezifikoak jasotzen baditu.

– 2 puntu, deskribatutako identifikazio-prozesuan xede-biztanleriak aktiboki parte hartu badu eta tokiko bazkideak buru izan badira.

– 3 puntu, gehienez, xede-populazioari dagokionez.

• 2 puntu, identifikatutako xede-biztanleria egokia bada eta egindako hautaketa justifikatuta badago.

• Beste puntu 1, ikusezin eta/edo minorizatutako kolektiboak modu esanguratsuan txertatzen badira proiektuan.

– 2 puntu, GLEAk aldez aurretik lagundutako prozesu bat baldin bada, prozesuaren jarraipena egokitzat jotzen bada, eta formularioan behar beste justifikatzen bada.

– Gehienez 10 puntu, esku-hartzea estrategikoa eta egokia bada GLEAren IV. Gida Planean ezarritako lehentasunen arabera.

• 4 puntu, proiektua IV. Gida Planean lehenetsitako sektoreetako batean kokatzen bada: emakumeen ahalduntzea eta giza eskubideen defendatzaileen babesa.

• 4 puntu, proiektua Afrikan gauzatzen bada.

• 2 puntu, ekimena estrategikoa eta egokia dela frogatzen bada, testuinguruari, aliantzei eta/edo eragileei dagokienez.

1.2.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez ere 11 puntu.

– 2 puntu, esku-hartzearen logika behar bezala deskribatuta badago eta hautatutako esku-hartzeko ekintza/estrategia justifikatzen badu.

– Gehienez, 3 puntu, esku-hartzearen logika koherentea bada.

• 3 puntu, esku-hartze logikak helburu espezifikoa lortzeko behar diren emaitza guztiak eta jarduera guztiak biltzen baditu, eta jarduera horiek ondo deskribatuta badaude.

• Puntu 1, esku-hartzearen logika koherentea bada, baina berariazko helburua lortzeko behar diren emaitzetako bat ez badu edo helburu hori lortzeko beharrezkoak ez diren emaitzak sartzen badira.

– Gehienez 3 puntu, jardueren eta horiek ezartzeko baliabideen artean koherentzia badago.

• 3 puntu, baldin eta lotura koherentea badago jardueren, bitartekoen eta kostuen, eta elementu horiek aurrekontuan jasotzeko moduaren artean.

• Puntu 1, jarduerak aurrekontura behar bezala eramaten ez badira, edo esku-hartzearen logikarako beharrezkoak ez diren atalak badaude.

– 3 puntu, gehienez, adierazle zehatzak (kualitatiboak eta kuantitatiboak), neurgarriak eta egiaztagarriak formulatzen badira.

• 3 puntu, baldin eta berariazko helburuarekiko eta espero diren emaitzekiko adierazle egokiak ezartzen badira; beharrezkoa izango da genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzea.

• 2 puntu, baldin eta adierazle egokiak ezartzen badira espero den emaitza bakoitzerako, baina ez helburu espezifikorako; beharrezkoa izango da genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzea.

• Puntu 1, adierazle egokiak ezartzen badira baina soilik emaitza baterako.

1.3.– Bideragarritasuna: gehienez, 14.

– 4 puntu, gehienez, proiektua behar bezala ezartzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.

• 4 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.

• 2 puntu, proiektua behar bezala inplementatzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak badirela frogatzen bada, baina horietako batzuetan gabeziak daudela identifikatzen bada.

– 2 puntu, ekimenak askotariko ikuspegi metodologikoak baditu: kulturartekoa, feminista, bizitzaren jasangarritasuna, dibertsitateen kudeaketa, intersekzionalitatea, besteak beste.

– Puntu 1, ezarritako kronograma bat badator ELMarekin eta aurkeztutako proposamenarekin.

– Gehienez 3 puntu, proiektua behar bezala inplementatzeko giza baliabide nahikoak daudela frogatzen bada.

• 3 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen direla frogatzen bada.

• Puntu 1, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada.

– Gehienez 2 puntu, ekimena bat badator erakunde eskatzailearen eta toki-erakundearen indarreko plangintza estrategikoarekin.

• Puntu 1, ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan behar bezala azalduta badago.

• Puntu 1, ekimena toki-erakundearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan behar bezala azalduta badago.

– 2 puntu, gehienez: jarraipen-sistema.

• Puntu 1, jarraipen-sistema egokia duela frogatzen bada.

• Puntu 1, etengabeko ikaskuntzarako mekanismoak baditu, hala nola sistematizazioak, ebaluazioak eta abar.

1.4.– Denboran eustea: gehienez ere 3 puntu.

– 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla bermatzen bada.

– Puntu 1, proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla bermatzen bada.

II.– Proiektuaren zeharkako ikuspegien arabera: 34 puntu.

2.1.– Zeharkakoa: genero-ikuspegia sartzea, eta gizonen eta emakumeen arteko egoera eta posizio desberdinak eraldatzea: gehienez, 7 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren genero-harremanen azterketa egina badago, gaian, lurraldean eta esku-hartze zehatzean oinarrituta.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• 2 puntu, ELMan emakumeak ahalduntzera eta/edo desberdintasun-arrakalak murriztera bideratutako helburu eta/edo emaitza zehatzak badaude, GG ikuspegiaren barruan.

• Puntu 1, ELMan emakumeen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako helburuak eta/edo emaitza zehatzak badaude, EG ikuspegiaren barruan.

– Bideragarritasuna: gehienez ere 3 puntu.

• Puntu 1, planteatutako metodologia egokia bada emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko.

• Puntu 1, giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta/edo emakumeak ahalduntzeko.

• Puntu 1, proiektuko ekintzetan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak sartzen badira.

– Estrategia: puntu 1, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko estrategia integrala proposatzen bada.

2.2.– Zeharkakoa: tokiko gaitasunak indartzea: gehienez, 7 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, proiektuaren xede diren biztanleen eta/edo haien erakundeen gaitasunei buruzko diagnostiko zehatza eta espezifikoa badago.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• 2 puntu, ELMan gaitasun estrategiko-politikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak eta ondo definituak badaude.

• Puntu 1, ELMan gaitasun teknikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatz eta ondo definituak badaude.

– Bideragarritasuna: gehienez ere 3 puntu.

• Puntu 1, planteatutako metodologia estrategia abian jartzera eta gaitasunak (teknikoak eta/edo estrategikoak, politikoak) sendotzera bideratzen bada.

• Puntu 1, giza baliabideak, eta baliabide tekniko, material eta instituzionalak egokiak badira tokiko gaitasunetan aurrera egiteko (gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak).

• Puntu 1, banakatutako aurrekontuan zehazten badira gaitasunak indartzeko (teknikoak edota estrategikoak, politikoak) giza baliabide, eta baliabide tekniko eta material espezifiko horiek.

– Estrategia: puntu 1, xede-biztanleriaren tokiko gaitasunak sortzeko estrategia integrala proposatzen bada.

2.3.– Zeharkakoa: parte-hartze prozesuak sortzea: gehienez, 5 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriak (aniztasunetik abiatuta) lehendik dauden erabakiguneetan zenbateko parte-hartzea duen aztertzen duen azterketa zehatz eta espezifikoa baldin badago, eta betiere honako bi alderdi hauetatik bat, gutxienez, biltzen badu:

a) esku-hartze eremuan (instituzionala, publikoa, tradizionala, alternatiboa eta abar), lehendik dauden parte hartzeko eta/edo erabakiak hartzeko espazioen azterketa.

b) xede-biztanleriaren eta/edo elkarte komunitarioen parte hartzeko eta/edo erabakiak hartzeko espazioen azterketa.

– Esparru logikoaren matrizea: 3 puntu, gehienez.

• Puntu 1, proposatzen diren helburu eta/edo emaitza zehatz eta ongi zehaztuek xede-biztanleriak erabakiguneetan duen parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa hobetzen badute.

• Puntu 1, xede-biztanleriak erabakiak hartzeko guneetan parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa izateko jarduera zehatzak planteatzen badira.

• Puntu 1, erabakiguneetako parte-hartzea neurtzeko inpaktu-adierazle bat izanez gero.

– Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada xede-biztanleriak ordezkaritzako eta erabakitzeko instantzia estrategikoetan parte har dezan.

2.4.– Zeharkakoa: elkartea indartzea: gehienez, 5 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, proiektuaren esku-hartze eremuan dauden erakunde eta elkarte-sareei buruzko azterketa zehatz eta espezifikoa baldin badago.

– Esparru logikoaren matrizea: 3 puntu, gehienez.

• Puntu 1, erakundeak sustatzeko helburu eta/edo emaitza zehatz eta ondo definituak planteatzen badira.

• Puntu 1, erakundeak indartzeko jarduera zehatzak planteatzen badira.

• Beste puntu 1, eskualdean eta globalki agenda global baten inguruan egituratzeko jarduerak izanez gero.

– Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada elkartea eta/edo elkarteak indartzearren.

2.5.– Zeharkakoa: eskubideen ikuspegia: gehienez, 5 puntu.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• 2 puntu, honako atal hauek barne hartzen dituen azterketa bat badago: a) proiektuan landuko d(ir)en eskubide(ar)en egoerari buruzko azterketa; b) proiektuan landuko d(ir)en eskubideari/eskubideei buruzko tokiko-nazioko-eskualdeko-nazioarteko legeriaren azterketa; c) eskubideen titularren eta betebeharren titularren identifikazioa, baita haien gaitasunena ere.

• Puntu 1, aipatutako ataletatik gutxienez 2 barnean hartzen baditu.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, eskubideen titularren (defentsa eta galdagarritasuna) eta/edo betebeharren titularren (errespetua, babesa eta sustapena) gaitasunak indartuko dituzten helburu eta/edo emaitza zehatzak eta ondo definituak planteatzen badira.

• Puntu 1, eskubideen titularren eta/edo betebeharren titularren gaitasunak indartzeko jarduera zehatzak planteatzen badira.

– Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada eskubideen titularrak galdagarritasunean indartzeko eta/edo betebeharren titularrak betetze horren bermean indartzeko.

2.6.– Zeharkakoa: jasangarritasun ekologikoa: gehienez, 5 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren ingurunearen ingurumen-egoerari buruzko azterketa zehatza badago.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, jasangarritasun ekologikoaren aldeko helburu eta/edo emaitza zehatzak eta ondo definituak planteatzen badira.

• Puntu 1, jasangarritasun ekologikoaren aldeko jarduera zehatzak planteatzen badira.

– Estrategia: puntu 1, ingurunearen ingurumen-egoera hobetuko duen estrategia integral bat planteatzen bada.

– Puntu 1, proiektuko jardueren eragin negatiboa prebenitzeko eta arintzeko neurriak badaude.

III.– Euskal erakunde eskatzailearekin edo eaeko ordezkaritzarekin lotutako alderdiak: 9 puntu.

3.1.– Oinarri soziala: gehienez, 3 puntu (partzuergoburua).

– Puntu 1, EAEn 200 bazkide baino gehiago baditu.

– Puntu 1, EAEn 10 bazkide baino gehiago baditu.

– Puntu 1, EAEko lankidetza arloko koordinakunde edo sare batean parte hartzen badu, betiere erakunde horrek jokabide-kodea badu eta dagokion jarraipen-batzordeak zigorrik ezarri ez badio.

3.2.– Esperientzia: gehienez, 2 puntu (partzuergoburua).

– 2 puntu, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– Puntu 1, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

3.3.– Erakunde eskatzailearen eta tokikoaren arteko aurreko harremana: gehienez, 2 puntu (partzuergoburua).

– 2 puntu, baldin eta euskal erakundeak egiaztatzen badu deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019) toki-erakundearekin lan jarraitua egin duela.

– Puntu 1, baldin eta euskal erakundeak egiaztatzen badu deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2017-2019) toki-erakundearekin lan jarraitua egin duela.

3.4.– Genero ikuspegia erakunde arloan sartzea: puntu 1 (partzuergoburua).

– Puntu 1, erakundeak genero-ekitatearen aldeko indarreko ekintza-plan estrategikoa badu.

3.5.– Erakunde eskatzaileen arteko partzuergoa: puntu 1, proiektua parte-hartze esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu.

IV.– Tokiko erakundearekin lotutako alderdiak: 9 puntu.

4.1.– Esperientzia: 3 puntu, gehienez (partzuergoko onena).

– 3 puntu, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– Puntu 1, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

4.2.– Tokiko erakundearen harremana xede-biztanleriarekin: gehienez, 3 puntu (partzuergoko onena).

– 3 puntu, toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin lan-esperientzia jarraitua izan duela, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– Puntu 1, toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin lan-esperientzia jarraitua izan duela gutxienez deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

4.3.– Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea: gehienez, 2 puntu (partzuergoko onena).

– Puntu 1, tokiko erakundeak indarreko genero-politika bat badu.

– Puntu 1, erakundea erakunde feminista bada.

4.4.– Tokiko erakundeen arteko partzuergoa: puntu 1, proiektua parte-hartze esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu.

B) Garapen produktiboko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak(II. kapitulua).

I.– Proiektuaren edukien arabera: 49 puntu.

1.1.– Proiektuaren bidezkotasuna eta egokitasuna testuinguruari eta 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planari dagokionez: gehienez, 21 puntu.

– Gehienez ere 4 puntu, ekimena egokia bada dagokion testuinguruaren analisiari dagokionez, eta diagnostikoan identifikatutako premiei erantzuten badie.

• Puntu 1, xede-biztanleriaren pobrezia- eta desberdintasun-egoeraren egiturazko azterketa eta/edo interpretazio nahikoa badu.

• Puntu 1, analisiak xede-biztanleriaren gaiari eta kokapen geografikoari buruzko datu espezifikoak baditu.

• Puntu 1, proiektuaren xede diren tokiko erronka eta arazoek dinamika globalekin duten konexioaren azterketa kritikoa egiten baldin badu.

• Puntu 1, ekimena testuinguruari dagokionez bidezkoa, estrategikoa eta egokia dela frogatzen bada.

– 2 puntu, xede-biztanleriak identifikazio-prozesuan parte-hartze aktiboa izan badu eta, hala badagokio, tokiko erakunde bazkideak gidatu badu prozesu hori.

– 3 puntu, gehienez, xede-populazioari dagokionez.

• Puntu 1, identifikatutako xede-biztanleria egokia bada eta haren hautaketa justifikatuta badago.

• Puntu 1, xede-biztanleriak ahalmen biderkatzailea badu.

• Beste puntu 1, ikusezin eta/edo minorizatutako kolektiboak modu esanguratsuan txertatzen badira proiektuan.

– 2 puntu, GLEAk aldez aurretik lagundutako prozesu bat baldin bada, prozesuaren jarraipena egokitzat jotzen bada eta formularioan behar beste justifikatzen bada, aurreko ekimenetatik ateratako ondorioak, ikasitako ikasgaiak eta hobekuntzak barnean hartuta.

– Gehienez, 10 puntu, esku-hartzea estrategikoa eta egokia baldin bada GLEAren IV. Gida Planean xedatutako lehentasunen, ikuspegien eta/edo ekimen adierazgarrien arabera.

• 2 puntu, proiektua IV. Gida Planean lehentasunezkotzat jotako sektoreetako batean txertatzen bada: emakumeak ahalduntzea eta giza eskubideen defendatzaileak babestea.

• 4 puntu, gehienez, esku-hartzeak Afrikarekin zerikusia badu:

○ 4 puntu, proiektua Afrikan gauzatzen bada.

○ 2 puntu, proiektuak Afrikarekin eta/edo Afrikako pertsonen erakundeekin artikulazio esanguratsuak sortzen baditu.

• Gehienez 2 puntu, esku-hartzeak dinamika lokalak eta globalak lotzeko bidean aurrera egiten badu.

○ Puntu 1, xede-biztanleriak testuinguru lokala eta globala kritikoki interpretatzeko duen gaitasuna garatzea ahalbidetzen duten jarduerak planteatzen badira.

○ Puntu 1, proposatutako jardueren xedea bada hainbat eragileren artean sareak sustatzea eta agenda global baten inguruan eskualde/mundu mailako egituratzea egitea, esperientziak partekatzea eta lankidetza espezifikoak zehaztea ahalbidetuko duten espazioak sortzeko.

• Puntu 1, proiektuak erantzunkidetasuna sustatzen badu, lankidetza-arloan tradizionalak ez diren Euskadiko eragileak modu esanguratsuan mugiarazita.

• Puntu 1, esku-hartzea IV. Gida Planeko Auzo(lan)kideak deituriko ekimen enblematiko batean kokatzen bada.

1.2.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez ere 11 puntu.

– 2 puntu, esku-hartzearen logika behar bezala deskribatuta badago eta hautatutako esku hartzeko estrategia justifikatzen badu.

– Gehienez, 3 puntu, esku-hartzearen logika koherentea baldin bada.

• 3 puntu, esku-hartze logikak helburu espezifikoa lortzeko behar diren jarduera guztiak eta emaitza guztiak biltzen baditu, eta haiek ondo deskribatuta badaude.

• Puntu 1, esku-hartze logikak helburu espezifikoa lortzeko beharrezko elementu guztiak ez baditu biltzen edo hori lortzeko beharrezkoak ez diren emaitzak sartzen badira.

– Gehienez 3 puntu, jardueren eta horiek ezartzeko baliabideen artean koherentzia badago.

• 2 puntu, erlazio koherentea badago jardueren, bitartekoen eta kostuen, eta elementu horiek aurrekontuan biltzeko moduaren artean.

• Puntu 1, jarduerak ez badira egoki biltzen aurrekontuan edo esku-hartzearen logikarako beharrezkoak ez diren atalak baldin badaude.

• Beste puntu 1, ekonomia sozial eta solidarioko baliabideak erabiltzen badira.

– Gehienez, 3 puntu, adierazle (kualitatibo eta kuantitatibo) zehatzak, neurgarriak eta egiaztagarriak formulatzen badira.

• 3 puntu, baldin eta berariazko helburuarekiko eta espero diren emaitzekiko adierazle egokiak ezartzen badira; beharrezkoa izango da genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzea.

• 2 puntu, baldin eta adierazle egokiak ezartzen badira espero den emaitza bakoitzerako, baina ez helburu espezifikorako.

• Puntu 1, adierazle egokiak ezartzen badira baina soilik emaitza baterako.

1.3.– Bideragarritasuna: gehienez ere 14 puntu.

– Gehienez 2 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko baliabide metodologiko, tekniko eta instituzionalak daudela frogatuz gero.

• 2 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko baliabide teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.

• Puntu 1, proiektua behar bezala inplementatzeko baliabide teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada, baina horietako batzuetan gabeziak daudela identifikatzen bada.

– Gehienez 3 puntu, proiektua behar bezala inplementatzeko baliabide metodologikoak daudela frogatzen bada.

• Puntu 1, xede-biztanleriarekiko egokitzapen metodologikoa badago.

• Puntu 1, aurreikusitako jarduerekiko egokitzapen metodologikoa badago.

• Puntu 1, planteatutako metodologia egokia bada komunikazio horizontala sustatzeko eta jakintzaren dekolonialtasuna sustatzeko.

– Puntu 1, ezarritako kronograma bat badator ELMarekin eta aurkeztutako proposamenarekin.

– 3 puntu, gehienez ere, proiektua behar bezala inplementatzeko giza baliabide nahikoak daudela frogatzen bada, bai Euskadin bai lurraldeetan.

• 3 puntu, giza baliabideek proiektua behar bezala ezartzeko gaitasun nahikoa dutela eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen direla frogatzen bada.

• Puntu 1, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada.

– 2 puntu, gehienez ere, ekimena bat badator erakunde eskatzailearen eta, hala badagokio, tokiko erakunde bazkidearen indarreko plangintza estrategikoarekin.

• Puntu 1, ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan behar bezala azalduta badago.

• Puntu 1, ekimena tokiko erakunde bazkideak indarrean duen plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan behar bezala azalduta badago.

– Puntu 1, jarraipen-sistema egoki bat dagoela frogatzen bada. Sistema horretan, erakunde bakoitzaren rola eta haien arteko lotura azaldu behar dira.

– 2 puntu, gehienez: etengabeko ikaskuntza.

• Puntu 1, egindako jarduerak jakinaraztea eta xedeen eta adierazleen jarraipena egitea planteatzen bada, aurrerapen eta zailtasunei dagokienez, xede-biztanleriarekin.

• Puntu 1, ebaluazioen edo sistematizazioen bidez ikaskuntzak sortzeko espazioen eta uneen aurreikuspena badago eta sortutako ikaskuntzen komunikazio- eta hedapen-estrategia bat badago.

1.4.– Denboran eustea: gehienez ere 3 puntu.

– 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzei eta helburuari denboran eutsiko zaiela bermatzen bada.

– Puntu 1, proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla bermatzen bada.

II. – Proiektuaren zeharkako ikuspegien arabera: 33 puntu.

2.1.– Zeharkakoa: genero-ikuspegia sartzea, eta gizonen eta emakumeen arteko egoera eta posizio desberdinak eraldatzea: gehienez, 7 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren genero-harremanen azterketa egina badago, gaian, lurraldean eta esku-hartze zehatzean oinarrituta.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, ELMan sexu- eta/edo genero-desberdintasunen arrakala murrizten laguntzen duten emaitza eta/edo jarduera esanguratsuak badaude.

• Puntu 1, ELMan genero-ikuspegia txertatzen laguntzen duten emaitza eta/edo jarduera esanguratsuak badaude.

– Bideragarritasuna: gehienez ere 3 puntu.

• Puntu 1, planteatutako metodologia egokia bada emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko.

•Puntu 1, giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta/edo emakumeak ahalduntzeko.

• Puntu 1, proiektuko ekintzetan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak sartzen badira.

– Estrategia: puntu 1, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko estrategia integrala proposatzen bada.

2.2.– Zeharkakoa: tokiko gaitasunak indartzea: 10 puntu, gehienez.

– Diagnostikoa: 2 puntu, gehienez, proiektuaren xede diren biztanleen eta/edo haien erakundeen gaitasunei eta kalteberatasunei buruzko diagnostiko zehatza eta espezifikoa badago.

• 2 puntu, xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak modu zehatzean eta espezifikoan identifikatzen badira, eta analisia xede-populazioa osatzen duten pertsona-talde/-tipologien arabera zehazten bada.

• Puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak identifikatzen badira, baina analisia ez bada behar bezain zehatza eta espezifikoa.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• 2 puntu, ELMan gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak eta ondo definituak badaude.

• Puntu 1, ELMan gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak indartzea helburu duten jarduerak ondo zehaztuta badaude.

– Bideragarritasuna: gehienez ere 4 puntu.

• Puntu 1, planteatutako metodologia estrategia abian jartzera eta gaitasunak (teknikoak eta/edo estrategikoak, politikoak) sendotzera bideratzen bada.

• Puntu 1, giza baliabideak (pertsona zehatzak), baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira tokiko gaitasunak indartzeko (gaitasun teknikoak eta/edo estrategikoak, politikoak).

• Puntu 1, proiektuan parte hartzen duten hegoaldeko zein iparraldeko erakunde/instantzia gaitzaileak deskribatzen badira eta haiek proiektuaren garapenari egindako ekarpenak argudiatzen badira, metodologiari edo gaiari dagokionez.

• Puntu 1, banakatutako aurrekontuan zehazten badira gaitasunak (teknikoak edota estrategikoak, politikoak) indartzeko giza baliabideak, eta baliabide tekniko eta materialak.

– Ahalmen biderkatzailea: puntu 1, ekimenaren esparruan indartutako gaitasunak praktikan jartzeko eta erantzuteko tresnak eta proposamenak ematen badira.

– Estrategia: puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasunak sortzeko estrategia integral bat planteatzen bada.

2.3.– Zeharkakoa: parte hartzeko prozesuak sortzea: 4 puntu, gehienez.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriak kide diren antolakunde/erakundeetan eta/edo beren erkidego/udalerrietan duen partaidetza-mailari buruzko azterketa zehatza eta espezifikoa badago.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, parte-hartze aktiboa sustatzen duten helburuak eta/edo emaitzak planteatzen badira.

• Puntu 1, parte-hartze aktiboa sustatzen duten jarduerak planteatzen badira.

– Estrategia: puntu 1, estrategia integral bat planteatzen bada xede-biztanleriak proiektuaren garapenaren fase guztietan parte har dezan.

2.4.– Zeharkakoa: erakundea indartzea: 4 puntu, gehienez.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren kokapen geografikoan dauden antolakundeei/erakundeei eta elkarte-ehunari buruzko azterketa zehatza eta espezifikoa badago.

– Esparru Logikoaren Matrizea: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, elkarteak/erakundeak indartzeko helburuak eta/edo emaitzak planteatzen badira.

• Puntu 1, elkarteak/erakundeak indartzeko jarduerak planteatzen badira.

– Estrategia: puntu 1, elkartea (k) eta/edo erakundea (k) indartzeko estrategia integrala planteatzen bada.

2.5.– Eskubideen ikuspegia: gehienez ere 4 puntu.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• 2 puntu, honako atal hauek bilduko dituen azterketa bat baldin badago: a) proiektuan landuko d(ir)en eskubide(ar)en egoerari buruzko azterketa; b) proiektuan landuko d(ir)en eskubideari/eskubideei buruzko tokiko-nazioko-eskualdeko-nazioarteko legeriaren azterketa; c) eskubideen titularren eta betebeharren titularren identifikazioa, baita haien gaitasunena ere.

• Puntu 1, aipatutako ataletatik gutxienez 2 barnean hartzen baditu.

– Esparru Logikoaren Matrizea: puntu 1, helburu eta/edo emaitza zehatz eta ongi zehaztuak proposatzen badira eskubideen (defentsa eta galdagarritasuna) titularren eta/edo betebeharren (errespetua, babesa eta sustapena) titularren gaitasunak indartzearren.

– Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada eskubideen titularrak galdagarritasunean indartzeko eta/edo betebeharren titularrak betetze horren bermean indartzeko.

2.6.– Zeharkakoa: jasangarritasun ekologikoa: gehienez ere 4 puntu.

– Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren ingurunearen ingurumen-egoerari buruzko azterketa zehatza badago.

– Esparru Logikoaren Matrizea: puntu 1, jarduera zehatzak proposatzen badira jasangarritasun ekologikoaren alde.

– Estrategia: puntu 1, ingurunearen ingurumen-egoera hobetuko duen estrategia integral bat planteatzen bada.

– Puntu 1, proiektuko jardueren eragin negatiboa prebenitzeko eta arintzeko neurriak badaude.

III.– Euskal erakunde eskatzailearekin edo euskadiko ordezkaritzarekin lotutako alderdiak: 9 puntu.

3.1.– Esperientzia: gehienez ere 2 puntu (partzuergoburua).

– 2 puntu, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– Puntu 1, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

3.2.– Erakunde eskatzailearen eta toki-erakundearen arteko baterako lan-esperientzia, halakorik badago: 3 puntu, gehienez (partzuergoaren burua).

– 2 puntu, euskal erakundeak egiaztatzen badu tokiko erakunde bazkidearekin lan jarraituko esperientzia izan duela, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– 2 puntu, euskal erakundeak egiaztatzen badu tokiko erakunde bazkidearekin lan jarraituko esperientzia izan duela, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

– Beste puntu 1, konfiantzazko harremana, elkar ezagutzea eta baterako lanerako aukerak dituela egiaztatzen badu.

3.3.– Parte-hartzea eta lotura: puntu 1 (partzuergoburua).

– Puntu 1, proiektuarekin gaikako lotura duen nazioarteko koordinakunde, sare edo mugimenduren batean parte hartzen badu.

3.4.– Genero ikuspegia erakunde arloan sartzea: puntu 1 (partzuergoburua).

– Puntu bat, erakunde eskatzaileak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

3.5.– Erakunde eskatzaileen arteko partzuergoa: 2 puntu, gehienez.

– Puntu 1, proiektua partaidetza esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu.

– Beste puntu 1, partzuergoan Euskadiko eragile ez-tradizional bat sartzen bada lankidetzaren arloan.

IV.– Tokiko erakunde bazkidearekin lotutako alderdiak (hala badagokio): 9 puntu.

4.1.– Esperientzia: gehienez, 3 puntu (partzuergoko onena).

– 3 puntu, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– Puntu 1, baldin eta egiaztatzen badu lan-esperientzia jarraitua duela proiektuaren gaian, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

4.2.– Tokiko erakunde bazkideak xede-biztanleriarekin batera izandako lan-esperientzia: 3 puntu, gehienez (partzuergoaren onena).

– 3 puntu, tokiko erakunde bazkideak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin lan-esperientzia jarraitua izan duela, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2015-2019).

– Puntu 1, tokiko erakunde bazkideak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin lan-esperientzia jarraitua izan duela gutxienez deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2018-2019).

4.3.– Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea: gehienez, 2 puntu (partzuergoko onena).

– Puntu 1, tokiko erakunde bazkideak indarreko genero-politika badu.

– Puntu 1, tokiko erakunde bazkidea erakunde feminista bada.

4.4.– Tokiko erakunde bazkideen arteko partzuergoa: puntu 1, proiektua partaidetza esanguratsua duten erakundeen partzuergo batek gauzatzen badu.

C) Garapenerako hezkuntza proiektuak (III. kapitulua).

I.– Proiektuaren edukiak: 50 puntu, gehienez.

1.1.– Egokitasuna: gehienez ere 17 puntu.

1.1.1.– Proiektuaren bidezkotasuna eta egokitasuna 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planari dagokionez eta (H)Abian 2030 Planari dagokionez: 11 puntu, gehienez.

– Ekimena estrategikoa eta egokia bada, IV. Gida Planaren arabera (5 puntu, gehienez).

• 2 puntu, lehentasun sektorialak sustatzen laguntzen badu: emakumeen ahalduntzea edo giza eskubideen defendatzaileak babestea.

• Puntu 1, Afrikarekin edo Afrikako pertsonen erakundeekin artikulazioak sortzen baditu.

• 2 puntu, IV. Gida Planean eta auzolankideetan IV. Gida Planean eta auzolankideetan lehentasunezkotzat jotako gaiak lantzen baditu: giza eskubideen babesa, sexu- eta genero-dibertsitatea, gatazkak eraldatzea eta bakegintza, ekonomia solidarioaren eredua, enpresak eta giza eskubideak, erosketa publiko arduratsua, komunikazio hezitzailea, hezkuntza inklusiboa, teknologia egokia eta ingurumena.

– Ekimena estrategikoa eta egokia bada (H)Abian 2030 arauaren arabera (6 puntu, gehienez).

• 2 puntu, herritartasun global iraunkor eta ekitatiboko alternatibak bilatzen eta eraikitzen dituzten subjektuei laguntzen bazaie.

• 2 puntu, tradizionalak ez diren eragileak modu esanguratsuan sartzen badira: zentro teknologikoak, elkargo profesionalak, gizarte-mugimenduak (feminista, ekologista, internazionalista...), kultura-erakundeak, giza eskubideen erakundeak, sexu- eta ingurumen-aniztasuna, migratzaileen erakundeak, produkzio-sektore soziala eta unibertsitateak.

• 2 puntu, hezkuntza-proposamenetan pedagogia kritikoak, parte-hartzaileak eta sozioafektiboak bultzatzen badira, baita hainbat ikuspegi ere: kulturartekoa, feminista eta bizitzaren jasangarritasunari dagokiona, aniztasunak kudeatzekoa, zapalkuntzen intersekzionalitateari dagokiona.

1.1.2. – Egokia xede-biztanleriari dagokionez: 3 puntu, gehienez.

– Puntu 1, desberdintasunaren kausen azterketa badu eta xede-biztanleriaren testuinguruaren azterketarekin lotzen bada.

– Puntu 1, xede-biztanleriarentzat egokia bada, haren gaitasunen eta kalteberatasunetatik abiatzen delako.

– Puntu 1, herritarrentzako jarduera-ekimen zehatzak proposatzen badira, alternatibak eraikitzen eta praktikan jartzen inplikatzeko.

1.1.3.– Egokia erakunde aliatuei dagokienez: 3 puntu, gehienez.

– Puntu 1, proiektuaren garapenari egindako ekarpenak deskribatzen eta argudiatzen badira, metodologiari edo gaiari dagokionez.

– Puntu 1, gutxiengo bihurtutako kolektiboengana, egoera ahulean dauden kolektiboengana edo iristeko zailak diren kolektiboengana (dibertsitate funtzionala, sexuari, adinari, erlijioari, jatorriari edo kulturari... lotutako dibertsitatea) iristeko gaitasuna baldin badute.

– Puntu 1, biderkatzeko gaitasuna badute (proiektuaren irismena indartzeko dituzten mekanismoen eta bitartekoen berri ematen da).

1.2.– Koherentzia: gehienez ere 12 puntu.

1.2.1.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez ere 6 puntu.

– Gehienez 3 puntu, esku-hartzearen logika koherentea bada.

• 3 puntu, esku-hartze logikak helburu espezifikoa lortzeko behar diren emaitza guztiak eta jarduera guztiak biltzen baditu, eta jarduera horiek ondo deskribatuta badaude.

• Puntu 1, esku-hartzearen logika koherentea bada, baina berariazko helburua lortzeko behar diren emaitzetako bat ez badu edo helburu hori lortzeko beharrezkoak ez diren emaitzak sartzen badira.

– Adierazle egokiak eta nahikoak: 3 puntu, gehienez.

• Puntu 1. Oinarrizko lerroa baldin badu.

• 2 puntu. Aldaketa-adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak baldin baditu, zehatzak, neurgarriak eta egiaztagarriak.

○ Puntu 1. Hezkuntza-jardunbideetako aldaketekin lotuta baldin badaude, betiere proiektuaren proposamen metodologikoei jarraikiz.

○ Puntu 1. Pertsonengan eta kolektiboengan aldaketak lortzearekin lotuta baldin badaude, dela ezagutzen sorreran eta aplikazioan, dela jarrera edo ohituretan.

1.2.2.– Koherentzia aurrekontuan eta kronograman: gehienez 3 puntu.

– 2 puntu, partidak orekatuta badaude, proiektuaren edukien arabera.

– Puntu 1, ezarritako kronograma bat badator aurkeztutako proposamenarekin eta ELMarekin.

1.2.3.– Koherentzia plangintzekiko: gehienez ere 3 puntu.

– Puntu 1, ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan behar bezala azalduta badago.

– Puntu 1, proiektua Eusko Jaurlaritzaren indarreko plan sektorialen barruan badago eta formularioan behar bezala azalduta badago.

– Puntu 1, proiektua garapenerako nazioarteko agendaren barruan badago (erakundeen edo gizarte-mugimenduen agendan) eta formularioan behar bezala azalduta badago.

1.3.– Bideragarritasuna: 13 puntu.

1.3.1.– Bideragarritasuna, lortu nahi diren aldaketei dagokienez: 2 puntu, gehienez.

– Puntu 1, xede-biztanleriarengan lortu nahi diren aldaketa zehatzak eta aldaketaren kontakizuna aurkezten badira.

– Puntu 1, erakunde eskatzailearen, erakunde aliatuen edo xede-biztanleriaren hezkuntza-praktiketan edo hezkuntza-ikuspegian aldaketak planteatzen badira.

1.3.2.– Baliabideen bideragarritasuna: gehienez, 3 puntu.

– 2 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen badira.

– Puntu 1, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada.

– Beste puntu 1 proiektua behar bezala ezartzeko baliabide teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.

1.3.3.– Bideragarritasun metodologikoa eta irisgarritasuna: 4 puntu, gehienez.

– 2 puntu, xede-biztanleriarekiko egokitzapen metodologikoa badago.

– 1 puntu, aurreikusitako jarduerekiko egokitzapen metodologikoa badago.

– Puntu 1, proiektuan sortutako baliabideen (argitalpenak, materialak, etab.) eskuragarritasuna aurreikusten bada.

1.3.4.– Bideragarritasuna etengabeko ikaskuntzari dagokionez: gehienez, 4 puntu.

– Jarraipenerako eta etengabeko ikaskuntzarako mekanismoak aurreikusten dira: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, egindako jarduketak xede-biztanleriari komunikatzea aurreikusten bada, aurrerabideari eta zailtasunei dagokienez, baita proposatutako xede eta adierazleen jarraipena egitea ere.

• Puntu 1, proiektua ez ezik, proiektuan sortzen diren baliabide eta ikaskuntzak ere komunikatzeko eta ezagutarazteko estrategia bat baldin badago.

– Ikaskuntzak, ikasbideak eta hobekuntzak txertatzea proposatu da: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, aurreko esku-hartzeetatik eratorritako ondorioak, ikasitako irakaspenak eta hobekuntzak sartzen badira lana antolatzeko ekintzetan, metodologietan edo dinamiketan.

• Puntu 1, ebaluazioen edo sistematizazioen bidez ikaskuntzak sortzeko espazioak eta uneak aurreikusten badira.

1.4.– Proiektuaren jasangarritasuna: gehienez ere 3 puntu.

– 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla bermatzen bada.

– Puntu 1, proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla bermatzen bada.

1.5.– Xede biztanleria: gehienez ere 5 puntu.

– 2 puntu, xede-biztanleria hautatzeko irizpide zehatzak baldin badaude.

– 2 puntu, gehienez, xede den populazioak ahalmen biderkatzailea badu:

• Puntu 1, baldin eta pertsona hauekin lan egiten bada: irakasleak, komunikatzaileak, hezitzaileak eta lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikasleak.

• Puntu 1, biderkatzeko gaitasun hori garatzeko tresnak eta proposamenak emango bazaizkie.

– Puntu 1, proiektua hiriburuak ez diren 4 udalerritan, gutxienez, gauzatzen bada.

II.– Zeharkako ikuspegiak: 40 puntu, gehienez.

2.1.– Tokiko ikuspegi globala: 8 puntu, gehienez.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• Puntu 1, proiektuaren tokiko gaiaren azterketa kritikoa eta egiturazkoa badago, testuinguru globalari dagokionez.

• Puntu 1, xede-biztanleriak alternatiba tokiko-globalak egituratzeko dituen gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago.

– Proiektuaren Plangintzako Matrizean emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazle errealista eta neurgarriak txertatzea, betiere ikuspegi tokiko globala sustatzen dutenak: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, tokiko testuingurua eta testuinguru globala kritikoki interpretatzeko gaitasuna garatzea ahalbidetzen badute.

• Puntu 1, tokiko mailan globaltasunarekin konektatuta jarduteko aukera ematen badute.

– Hego global eta geografikoko kolektiboek parte hartzeko eta aliantzak indartzeko estrategia: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, agenda global batekin aliantzak edo konexioak baldin badaude (jakintzak partekatu eta deskolonizatzeko; guztioi dagozkigun gaiak lantzea; lanerako eta jarduteko estrategiekin aberastea) edo lankidetzako ekintzak hezkuntzako ekintza tradizionalagoekin konektatzea.

• Puntu 1, Hego global eta geografikoko kolektibo eta elkarteek parte hartzen badute.

– Zeharkako hori sartzeko baliabide espezifikoak: ekonomikoak, giza baliabideak, aliantzak: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.

• Puntu 1, lotura lokal-globalerako aliantza esanguratsuetarako baliabideak badaude.

2.2.– Generoa: gehienez ere 8 puntu.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• Puntu 1, genero-harremanen egoerari buruzko azterketa kritiko eta egiturazkoa baldin badago.

• Puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak aztertzen badira, emakumeen ahalduntzeari eta genero-desberdintasuneko arrailak ezabatzeari dagokienez.

– Proiektuaren Plangintzako Matrizean ekitatearen aldeko emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazleak: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, sexu- eta/edo genero-desberdintasunen arrakala murrizten laguntzen badute.

• Puntu 1, baldin eta beren sexu-identitateagatik/generoagatik gutxitutako emakumeen edo kolektiboen ahalduntzean laguntzen badute.

– Ekitatea sustatzen duen estrategia: 2 puntu, gehienez.

• Puntu 1, mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek aktiboki parte hartzen badute eta/edo agenda feministaren alderdiak txertatzen badira.

Puntu 1, generoagatik edo bestelako askotariko identitateengatik (jatorria, ekonomia, sexua...) minorizatutako kolektiboen ikuspuntuak eta parte-hartzea txertatzeko estrategia egokiak baldin badaude.

– Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak dirua, pertsonak, aliantzak: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.

• Puntu 1, ikuspegi hori txertatzeko aliantza esanguratsuak lortzera bideratutako baliabideak baldin badaude.

2.3.– Parte-hartzea eta antolamendua: gehienez ere 8 puntu.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• Puntu 1, testuinguruan dagoen egoeraren azterketa kritikoa eta egiturazkoa egin bada botere-harremanei, xede-biztanleriaren parte-hartzearen arrailari eta ahalduntzeko potentzialtasunari dagokienez.

• Puntu 1, xede-biztanleriak parte-hartzea sustatzeko eta aukerak egituratzeko dituen gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago.

– Proiektuaren Plangintzako Matrizean parte-hartzea/antolamendua sustatzen duten emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazleak: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, xede-biztanleriak modu aktiboan parte hartzeko dituen gaitasunak indartzeko lagungarri badira.

• Puntu 1, oinarrizko erakunde edo erakunde aliatuek proposamen alternatiboak sortzeko dituzten gaitasunak indartzeko lagungarri badira.

– Parte-hartzea eta/edo antolamendua sustatzeko estrategia: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, xede-biztanleriak proiektuaren jardun-eremuetan parte hartzeko dituen mekanismoak deskribatzen badira: proiektuaren identifikazioa, diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa.

• Puntu 1, minorizatutako kolektiboek proiektuko jardueretan parte har dezaten sustatzeko mekanismo espezifikoak baldin badaude.

– Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak dirua, pertsonak, aliantzak: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, baliabide ekonomiko nahikoak badaude.

• Puntu 1, giza baliabide nahikoak badaude.

2.4.– Giza eskubideak: gehienez ere 8 puntu.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• Puntu 1, eskubideen egoerari buruzko azterketa kritiko eta egiturazkoa baldin badago.

• Puntu 1, xede-biztanleriaren eta betebeharren titularren gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago, pertsona guztien eskubideak bete daitezen.

– Proiektuaren Plangintzako Matrizean Giza Eskubideak bermatzeko, errespetatzeko eta sustatzeko gaitasunak indartzen laguntzen duten emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazleak txertatzea: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, eskubideen titularrek eskubide horien berri izateko eta beren eskaerak aldarrikatu ahal izateko gaitasunak indartzeko lagungarri badira.

• Puntu 1, betebeharren titularrak indartzeko lagungarri badira, eskubide horiek bermatu, errespetatu eta sustatu ditzaten.

– Eskubideak defendatzeko eta bermatzeko estrategia baldin badago: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, proiektu osoan eskubideekin lotutako ekintza-proposamenak eta gaiak lantzen badira.

• Puntu 1, minorizatutako kolektiboen eskubide espezifikoen defentsa eta bermea txertatzen bada eskubideen edo betebeharren titularrekin lan eginez.

– Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak dirua, pertsonak, aliantzak baldin badaude: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, baliabide ekonomiko nahikoak badaude.

• Puntu 1, giza baliabide nahikoak badaude.

2.5.– Jasangarritasun ekologikoa: gehienez ere 8 puntu.

– Diagnostikoa: gehienez ere 2 puntu.

• Puntu 1, ingurumenaren egoerari buruzko azterketa kritiko eta egiturazkoa baldin badago.

• Puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago, jasangarritasun-ikuspegia bultzatzen duen parte-hartzea sustatze aldera.

– Proiektuaren Plangintzako Matrizean ingurumen-jasangarritasunaren aldeko emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazleak txertatzea: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, proiektuaren eta proposatutako ekintzen ingurumen-inpaktua identifikatzeko lagungarri badira.

• Puntu 1, ingurunea modu jasangarrian kudeatzeko lagungarri badira.

– Ingurumen-jasangarritasuna sustatzeko estrategia baldin badago: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, mugimendu ekologistak eta ingurumen-arloko elkarteek parte hartzen badute eta/edo jasangarritasun-agendaren alderdiak txertatzen badira.

• Puntu 1, proiektuan baliabideak maneiatzeko eta kudeatzeko ingurumen-irizpideak ezartzeko mekanismoak baldin badaude honako hauekin lotuta: energia-eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria, inpaktuak leuntzea, kontsumo arduratsu eta jasangarria, ekonomia solidarioa, eta abar.

– Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak dirua, pertsonak, aliantzak baldin badaude: gehienez, 2 puntu.

• Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.

• Puntu 1, ikuspegi hori txertatzeko aliantza esanguratsuak lortzera bideratutako baliabideak baldin badaude.

III.– Erakunde eskatzailea (partzuergoburua): gehienez 10 puntu.

3.1.– Kudeaketa esperientzia, gaiarekin loturik: 1 puntu.

– Puntu 1, azken 5 urte naturaletan (2015-2020) proiektuaren gaiarekin lotutako 5 proiektu edo ekimen, gutxienez, kudeatu baditu.

3.2.– Hezkuntza-arloko erakundea: gehienez, 2 puntu.

– Puntu 1, ekitatearen aldeko indarreko plana baldin badu.

– Puntu 1, sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren kontrako protokolorik baldin badu.

– Puntu 1, ekonomia sozial eta solidarioko baliabideak erabiltzen badira.

3.3.– Parte-hartzea eta lotura: gehienez, 2 puntu.

– Puntu 1, EAEko lankidetza arloko koordinakunde edo sare batean parte hartzen badu, betiere erakunde horrek jokabide-kodea badu eta dagokion jarraipen-batzordeak zigorrik ezarri ez badio.

– Puntu 1, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen hezkuntza-taldean edo beste hezkuntza-sare batzuetan parte hartzen badu.

3.4.– Partzuergoak: gehienez ere 2 puntu.

– Puntu 1, eragile tradizionalen (GGKEak, hezkuntza-komunitateak, lanbide-heziketako ikastetxeak eta aisialdiko taldeak) arteko partzuergoa aurkezten bada.

– 2 puntu, eragile tradizionalen eta ez-tradizionalen arteko partzuergoa aurkezten bada.

3.5.– Gizarte-oinarria: gehienez ere 2 puntu.

– Puntu 1, 10 boluntario baino gehiago baditu.

– Puntu 1, 200 bazkide baino gehiago baditu.